

San Nikolas-Antzoki Auzo Elkarte eta Antena NO - Getxo elkarteek ohartarazten dute Telefonika eraikinean dagoen antenak eragin ditzakeen osasun-arriskuaz. Hain zuzen ere, kalte horiek larriak izan litezke Getxo Antzokian Udalak kokatu nahi duen Musika Eskolan ikasiko luketen umeentzat. Hori dela eta, aipaturiko Musika Eskola bertan ez kokatzeko eskatzen dute, hau da, antenatik 30 metroko ingurunean.

Auzotarren salaketa Joseba Arregi Hirigintzako zinegotziak urtarrileko udal bilkuran esandako alerta-hitzetan oinarritzen da; Arregik ohartarazi baitzuen Telefonika eraikinean kokatuta dauden antenak eta transformadoreek sortzen dituzten osasun-arriskuez, eta horiek izan dira eskola bertan kokatzeko auzotarrek egin zuten eskaerari uko egiteko argudio nagusiak. Behin arrazonamendu hori onartuta, bi elkarteek gaia ikertu dute eta arrisku horiek errealak direla ez ezik, antenak emitituriko uhinek arriskua areagotzen dutela ondorioztatu dute. Horregatik, ados daude zinegotziarekin eta uste dute 50 metroko esparruan eskola bat kokatzea osasun-kalte larriak ekarri ahalko lituzkeela bertan ikasiko luketen umeengan. Hori dela eta, zentzuzkotzat jotzen dute eskola bertan ez kokatzea antena dagoen bitartean.

Horretaz gainera, gune horretan musika eskola bat kokatzeko arazoaz gain, antenaren presentzia bera da arazoa, ez soilik Getxo Antzoki inguruan bizitza soziala egingo duten herritarrentzat edo antzertira joango diren ikusleentzat, baizik eta bertan bizi diren auzotarrentzat ere.

Izan ere, Europako Parlamentuak, Ingurune eta Osasunari buruz 2008an hartutako erabaki batean, R.8 puntuan honako hau dio: “arreta berezia izan dadin ahulagoak diren taldeekin (haurdun emakumeak, jaio berriak, adin txikikoak eta agureak), gai kutsakorren aurrean sentikorragoak direnak, horretarako inguru kutsakorretan jartzeko murrizteko neurriak hartuz, osasun-zentruetan eta eskoletan, praktika onen bidez”. Beraz, premiazkoa da neurriak hartzea Telefonikako antenak eragindako kutsadura elektromagnetikoa ekiditeko, eta, nahiz eta herritarrengan orain arte eragin diren kalteak ezezagunak izan etorkizunean sor litezkeenak saihesteko.

### Irtenbideak

San Nikolas-Antzoki eta Antena NO - Getxo elkartearen ordezkarien ustetan, aipaturiko baldintzetan eta kutsaduraren arriskua dela eta -Joseba Arregi Hirigintza-arduradunak ziurtatu zuenez-, antena eta transformadoreak auzotik ateratzea litzateke soluziorik onena, eta gero toki hori berrerabili egokien jotzen den moduan (adibidez, Telefonika eraikina bertan behera bota eta, ondorioz, Antzoki zabalagoa baina ez hain altua egin, edo -behin hustu eta gero- eraikina erabili Muska Eskola edo Antzokian programaturiko beste zerbitzu batzuk kokatu).

Hori egiten ez bada, gaurko egoeran, ordea, ez da bidezkoa San Nikolas plazaren ingurunean musika eskolarik kokatu, dagoeneko udal bilkuran zinegotziak onartu zuen bezala arriskutsua izan litekeelako bertan ikasiko luketen umeentzat... Kasu horretan, Getxoko Musika Eskola non jarri aztertzen hasi beharko lukete agintariak eta herritarrek.

Antena NO - Getxo

<http://antenano.blogspot.com/>  
[antenano.getxo@gmail.com](mailto:antenano.getxo@gmail.com)

San Nikolas-Antzoki Auzo Elkarte

<http://antzokisiperoasino.blogspot.com/>  
[antzokisiperoasino@gmail.com](mailto:antzokisiperoasino@gmail.com)